



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/07/08



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/07/08

2025EKO MAIATZAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko maiatzaren 28an, arratsaldeko 18:30tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, M^a Mar Ansorena, Alaia Etayo, Mikaela Elizalde eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK Iker Isiegas.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Apirilaren 28ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

-2025/ 47 alkate ebazpena losu Oscoz Anduezari Erbitiko 7. Poligonoko 181. lursailean 30 oilo edukitzeko iharduera, KALTEGABE deklaratzeari.

-2025/48 alkate ebazpena onartuz Itsasoko 4. poligonoko 425. lursailaren jardueraren aldaketa, alkatetzaren 52/2015 ebazpenaren bidez emandakoa, esnetarako behietatik ardietara pasatzea eta titularitatea aldatze, Ansorena Astiz Iker, Ansorena Astiz Aritz Sociedad Civil Agraria (CIFR J 71473367) sozietateari.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/07/08

-2025/49 alkate ebazpena obra baimena onartuz Usue Cia Abascal eta Miguel Arraras Pañosi Igoako 9. poligonoko 305. lursailean dagoen etxebizitza eraberritzea. 350.571,70 euroko aurrekontuarekin.

-2025/50 alkate ebazpena onartuz Jose Javier Martinez Mazok aurkeztutako aitorpen arduratsua eta memoria teknikoa, Igoako 9. Poligonoko 306. Lursailean dagoen etxebizitzaren teiltuan eguzki plakak jartzeko 4.945,45 euroko aurrekontuarekin.

-2025/51 alkate ebazpena onartuz Maria Luisa Goicoechea Mariezcurren aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera eta onartzea aipatutako NA 8450 AP matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

-2025/52 alkate ebazpena onartuz Yolanda Moreno Garcari Igoako 9. Poligonoko 318 lursailean 8 ardi edukitzea jarduera abeltzaintzako ustategi estentsibo moduan.

-2025/53 alkate ebazpena onartuz Yolanda Moreno Garcari Igoako 9. Poligonoko 318. lursailean 7 oilo edukitzea, iharduera KALTEGABEA aitortuz.

-2025/54 alkate ebazpena obra baimena onartuz Javier Vicente Perez Gamboari Beruete 11. Poligonoko 415. Lursaileko eraikinaren teiltua eta fatxadak berritu...: 129.428,52 euroko aurrekontuarekin.

-2025/55 alkate ebazpena Arquitectura Javier Flores SL-k aurkeztutako helegitea onartuz eta, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, beste likidazio bat egitea, 584 protokolo-zenbakia duen eskrituran ezarritako salerosketa-datuen arabera.

- 2025/56 alkate ebazpena esleitzuz COTA, Control Tecnico Administrativo S.L enpresari Sasturain etxeko altzarien hornidura kontratua 17.300 euro BEZ kanpoko kopurua, obra egiteko 3 asteko epearekin eta kontratuaren berme epea, osotara 4 urtekoa izanik.

-2025/57 alkate ebazpena onartuz Irati Mundunate Apariciori Apeztegi berriko eraikinaren bigarren pisuko erabilera anitzetako bigarren pisuko gela erabiltzea, uztailako astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara pilates klaseak emateko.

-2025/58 alkate ebazpena obra baimena onartuz Jose Manuel Oset eta Yolanda Morenori, Igoako 9. poligonoko 318. lursailean dagoen etxebizitza barrutik eraberritzea.: 162.523,45 euroko aurrekontuarekin.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Udabe eta Beramendiko herrietan frontoiak egiteko xehetasun azterlanak. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du jada martxoaren 26ko batzarrean hasiera batez onartu zirela bi herrietan frontoiak egikartzeko xehetasun azterlanak. Hirigintza instrumentu honen bidez zehazten dira eraikinen lerroakadurak eta kokapena. Tramitazioa 2017/1



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAQP U2UN PF2N VJYR

2025-05-28 akta - SEFYCU 197528

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/07/08



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/07/08

Legegintzako Foru Dekretuaren 74. Artikuluan zehazten da eta bertan adierazten da, hasierako onespeneke erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela eta espediente jendaurrean egongo da hogei egunetan aztertua izan dadin eta bidezko alegazioak aurkeztu daitezzen.

Hasierako onespeneke erabakia apirilaren 10eko 72 aldizkarian argitaratu zen eta maiatzaren 15a arte egon da jende aurreko epean. Alegazioak ez dira aurkeztu hortaz behin betikoz onartu ahal dira bi xehetasun azterlanak.

Bildutakoek hau kontutan hartuta, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Behin betikoz onartzea Udabe eta Beramendiko herrietan frontoiak egiteko kontzejuak sustatutako xehetasun azterlanak, bertan frontoi erabilera izango duten eraikinak egiteko eta 2017/1 Legegintzako Foru Dekretuaren 74 artikulua jarraituz, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu..

- Erabaki hau Udabe Beramendiko kontzejuari helarazi.

4.- Errepresialatutako omenduen plaka jartzearen onespena.

Alkateak azaltzen du aurreko batzarrean informatu zela maiatzaren 18an burutuko zela errepresialatuak izan ziren Basaburuko medikua eta maisuari omenaldia egingen zitzaiela. Batzarra horretan ere onartu zen adierazpen moduan Basaburuko alkateak irakurritako testua. Bi plaka jarriko zirela ere aipatu zen eta jada iritsi direnez eta errepresialatutako elkarteek agintzen dutenaren arabera, batzarrak onartu behar ditu plakak jartzea eta hauen kokapena, ondoren informazio hau jasota gera dadin elkarteetan.

Medikuaren oroitarazte plaka kontsultategian jarriko da atariaren ezker aldean, 597.863X eta 4.761.649 Y koordenadetan.

Maisuaren kasuan Oihanzabal eskolan jarriko da haren plaka, sarrerako eskubiko zutabearen 577.962 X eta 4.761.699 Y koordenaden arabeko kokapenean.

Hortaz bildutakoek plakak eta kokapenak ikusi ondoren eta aho batez onartzen dute Basaburuan errepresialatuak izan ziren mediku eta maisuaren oroitarazpen plakak kontsultategian eta eskolan jartzea, kokapena hurrenez hurren 597.863 X eta 4.761.649 Y eta 577.962 X eta 4.761.699 Y koordenadetan .





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/07/08



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/07/08

Alkateak dio badaudela gai zerrendan sartu ez diren bi gai, alde batetik Ttikienako haur eskolako 2025-2026 egutegiaren onespenera a Hezkuntza Departamentura helarazi behar delako ekainaren 13a baino lehen Educa plataforma bidez eta bestetik 2025eko langabetuak kontratatzeako programa eta diru laguntzaren onspena.

Bildutakoek aho batez onartzen dute bi gaiak aztertzea eta hortaz gai zerrendatik kanpo sartzen dira.

Ttikiena Haur eskolako 2025-2026 ikasturterako egutegiaren onspena

Alkateak azaltzen du nola Ttikienako zuzendariak bidali duen egutegi proposamena, ikastaroa 2025eko abuztuaren 22an hasiko da eta bukatu 2026ko uztailaren 3an. 204. Harrera egun izango ditu hurrengo ikasturteko egutegiak eta ordutegia goizeko 7:40etatik arratsaldeko 16:00etara luzatuko da. Mantentzen dira jardunaldi osoko bi unitateak euskarazko hizkuntza ereduan.

Bildutakoek aztertzen dute hurrengo ikasturteko egutegia eta oztoporik ez dagoenez, aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Ttikiena haur eskolako 2025-2026 ikasturterako egutegia onartzea, hasiera 2025eko abuztuaren 22an eta bukaera 2026ko uztailaren 3an izanik. Onartzen da baita ere jardunaldi osoko bi unitate mantentzea 2025-2026 ikasturtean euskara izanik hizkuntza erdua.

Erabaki hau Nafar Gobernura helaraztea agintzen dute bildutakoek EDUCA plataformaren bidez.

2025eko langabetuen kontratazio programaren onspena.

Urtero bezala azaltzen du alkateak langabetuak kontratatu direla udako lanak egiteko. Hiru pertsona hasi dira lanean, maiatzaren 26an 4 hilabeteko kontratuarekin. Programan sartuko diren lanak dira Basaburuko bideak desbrozatzea, Ihabengo aisialdi gunearen mantenimendua egitea, udal eraikinetako konponketak eta beste...

2018/251 Foru Aginduak arautzen du kontratazio diru laguntza eta bertan adierazten da diru laguntza eskaera eta programa bera batzarrak onartu behar duela.

Bildutakoek hortaz aho batez onartzen dute alde batetik 2025eko langabetuen kontratazioa eta burutuko den programa eta bestetik diru laguntza eskaera, 4 hilabetez 3 pertsona kontratatzeako Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/07/08



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/07/08

5.- Mozioak

Ez dago moziorik.

6. - Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Maiatzaren 24 eta 25ean Rogaine proba burutu zen, oso arrakastatsua izan zen 260 pertsonen izena eman zuten. Taldekako orientazio proba zen, 6 eta 12 ordukoak egiteko aukerarekin.

Udalak bazkaria eta opariak eman zituen.

Maiatzaren 31n BTT bizikleta martxa burutuko da, Gartzaron, Beramendi, Itsaso eta Jauntsarats arten. Bi ibilbide prestatu dira bat 3.5 km-koa eta bestea 10 km-koa. 22 haur eta 144 helduek izana eman dute.

Euskara eta Kultura Batzordeak. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Maiatzaren 13an bilera egin zuen batzordean udako programa ixteko. Hauek ekintzak, ekainaren 7an Basaburuko egunean bertso antzerkia, uztailaren erdialdean Gari kantariaren kontzertu akustikoa Sasturain etxearen atze aldean eta abuztuan pertseiden begiztatzea, aurretik hitzaldi bat egingo da.

Kontzejuen Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Maiatzaren 13an Aizarotzko kontzejuko batzorde kudeatzailea osatzen duten 5 pertsonen kargua hartu zuten eta haien artean lehendakaria, idazkaria eta kontu hartzailea izendatu zituzten, Eneko Iurramendi, Laia Vigue eta Beatriz Fuertes hurrenez hurren.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Eskola garraioaren inguruan Nafarroako Parlamentuan agerraldia burutu da, bertan azaldu zaien parlamentuko Hezkuntza Batzordeko kideei zein den Basaburuko ikasleen egoera, zenbateko gastua suposatu duen zerbitzu honek udalarentzat eta beste...

Emaiza izan da hurrengo ikasturterako Garraio Atalak linea berria esleituko duela Basaburutik Askatasunara joateko zuzenean, Ezkabarteko ikasleak hartuta.

Honek ibilbidea zerbait murriztuko du baina bakarrik Askatasunara joaten direnentzat izango da.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Maiatzaren 13an bilera egin zuen batzordeak eta bertan esleitu zen eguneko egoitzarako neurrian egin behar diren altzarien hornidura kontratua.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/07/08



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/07/08

Eskubide Sozialeko Departamentuan bilera batean egon zen alkatearekin, egoitza martxan jartzeko aukeren inguruko informazio jasotzen eta egoiliarren jasoko dituzten laguntzan inguruan hitz egiten.

Aipatu zuten dirulaguntza lerro berri bat irekiko dutela autonomiaren ongizaterako iharduerak burutzeko, tailerrak egiteko dirulaguntza %100ekoa izango da baina ez lukete garraioa diruz lagunduko.

Ekainaren 22an Sasurain etxeko ate irekiak egingo dira eta adinduak gonbidatuko. 11etatik 13etara jendeak eraikina ikusi ahalko du, ondoren alkateak hitzaldia bat egingo du proiektua aurkezteko eta lunch-a jarriko da. Gainera ere etxearen atze aldean dagoen etxolan adinduen argazki erakusketa jarriko da.

7.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

- Euskaraldiaren baitan zubiak sortzen ekitaldia burutu zen lhabengo pasaderan.
- Maiatzaren 18an errepresialatutako mediku eta maisuari omenaldia eskaini zitzaion.
- Mimukai proiektuaren inguruan bilera burutu zen eta bertan adostu udaletan Cedernak eskaintzen dituen zerbitzuan zabaltea.
- Uraren zikloaren plan berriaren aurkezpena burutu zen, plan horretan dago sartua alde batetik Gartzarongo depositoan hobekuntzak egitea eta bestetik Berueten dauden depositoetako batean ere.
- 2024ko kontuen aurkezpena egin zen maiatzaren 16an eta ondoren afaria egin zen Igoako ostatuko.
- Ekainaren 7an Basaburuko eguna ospatuko da Berueteko herrian
- Ekainaren 5ean bilera egingo da Aizarozko kontzejuko ordezkariekin, eskumenen eskuordetzearen inguruan hitz egiteko.
- Osasun programen dirulaguntzen ebazpenak jaso dira. 1200 euro hezkuntza afektibo sexuak programarako eta emakumeen programarako 588 euro.

8. Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez 19:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

